

PLACIDO MUGICA BERRONDO

Aurten ospatzen dugu Placido Mugica jaio zeneko chungarren urteburua. Urnietan sortu zen (1906) eta Loiolan hil (1982).

Norbait harri liteke Mugica eta Placido erdal erara idatzi dudalako. Berak bere hiztegietan horrela idazten zuen, ordea.


Dena dela, bere "Diccionario castellano-vasco" ezaguna 1965ean sinatu zidanean, "Muxika"tar Pl. S.I." idatzi zidan. Hementxe dut oraintxe neure begien aurrean sinadura hori.

Mugika ezagutzeko era izan nuen 1953 urtean Loiolan jesuita sartu nintzenean. Orduan bere euskal hiztegia egiten ari zen.

Nobiziatuan, baina, bi urtez, ez nuen berarekin harremanik izan. Nobiziatuan espirituzko gauzetan jarduten genuen eta ia maisuarekin bakarrik hitz egiten genuen.

Nik ezagutu nuenerako ezaguna zen Mugica. 1940ean Diccionario Latino-Español idatzia zuen. Zazpi argitalpen izan zituen.

1952an Svensson aleman jesuitaren Nonni und Manni euskaratu zuen. Nik badut oraindik liburu honen ale bat. Orduan



PLAZIDO MUXIKA



ere baina orain ere gustura irakur liteke abentura liburu hau, euskara indartsuz itzulia.

Nobiziatuko bi urteak egin eta junioratua hasi genuenetik oso elkartuak ibili ginen. Ni jesuita sartu arte gure herriko euskaraz bakarrik nekien. Ez nuen sekula gramatkarik neure eskuetan izan.

Nik gerla zibilaren ondoko urte gogor haiek bete betean harrapatu nituen. Eskolan euskaraz egitea erabat debekatua zen. Durangora joan nintzenean ere, jesuiten ikastetxean ez genuen eskoletan sekula hitz bat euskaraz entzun.

Junioratuan Mugica izan genuen euskarazko irakasle. Lehen neure bizitzan. Ostegunetan pare bat ordu izaten genituen berarekin. Batez ere aditza ikasten genuen eta gramatikako gorabehera nagusiak. Orduan hasi nintzen ni euskaraz idazten.

Mugicaren gelara joaten nintzen eta hantxe egoten zen, bere hiztegia egiten. Dena eskuz egiten zuen, fitxekin. Oinetako kaxak zeuzkan eta hantxe sartzen zituen fitxok. Ikusgarria zen bere gela oinetako kaxaz betea ikustea. Horrelako gizon langilea!

Eta azkenean bukatu zuen Diccionario Castellano-Vasco hiztegia, 1965. urtean. Hitzaurrean berak esaten digu nola hartu zuen lan hori egiteko asmoa.

1929 Colombiako Andesetan barna zihoala, ARGIA aldizkariaren puska bat aurkitu zuen.. Zirrara handia hartu omen



zuen hura ikusita. Itxuraz, Santa Kruz apaizak utzitakoa zen, handik igarotzen baitzen urte batzuk lehenago.

Orduantxe hartu omen zuen erlara-euskara hiztegi bat egiteko asmoa.

Hiztegiari Luis Michelenak egin zion kritika aipatzea merezi du.

“Múgica merece en conjunto un elogio incondicional por la riqueza casi exhaustiva de su documentación”. Gero ere berriz goraipatzen du.

Egiten dion kritika, baina, zuzena da.

“Su libro será ‘peligroso’ en manos de personas de escasa formación en nuestra lengua, aunque vaya a ser útil y aun utilísimo para quienes disponen de una buena preparación y son capaces de elegir por su propia cuenta y con arreglo a criterios bien establecidos”

Halaxe da. Mugicaren hiztegian elkarren ondoan daude toki askotan eta egunero erabiltzen diren hitzak eta esamoldeak eta oso bakan eta ia inon ezagutuak ez direnak.

Euskaraz ongi ez dakienak aukera dezake oso baztertua edo ia inork ulertu ez dezakeen lexikoa edo esapidea, besteren bat askoz hobeto letorkeen kasuan.

Nik hauxe esan behar dut. Ia berrogei urtez nabil zazpi probintzietako baserrietan eta Mugicaren hiztegia altxor agortezina aurkitzen dudala. Baserrietan egunero erabiltzen dituzten moldeak hortxe edirenen dituzu. Ez dago horrelako hiztegiarik.

Ibon Sarasolaren Zehazki Diccionario Castellano-Vasco hiztegiak badu Mugicarenak ez duen alderdi oso estimagarria. Aukera egin duela, ongi aukeratu ere, altxor horretatik egokiena iruditzen zitzaiona. Orain ere, ordea, Mugicaren altxorrera jotzen duena, oso aberastua aterako da. Nik neuk eten



gabe erabiltzen dut eta maiz harriturik gelditzen naiz gizon horrek egin zuen lana ikusita.

1969an Franz Weiser-en *Das Licht der Bergen* euskaratu zuen, *Mendiko argia*. Liburu hau ere erraz irakurriko duzu, kilitagarria baita eta euskara bikainez itzulia.

Mugicaren Diccionario Vasco-Castellano ere oso da txalagarria. Guztirakoa, zinez. Esapideetan, adibidez, iturri joria. Bi ale dira eta merke saltzen. Hiztegi honek duen alderdi seinalagarria: Euskal hitza erdarazko sinonimo askorekin agertzen dela. Itzulpena egiteko oso komenigarri. Beste hiztegiek euskal hitzaren ondoren gaztelaniazko hitz bakarra dakarte.

Mugicaren hiztegiok duten alderdi beltza *b* ez erabiltzea da. Batzuek esan dute Mugica euskara batuaren etsaia zela. Nik berarekin gai honetaz behin baino gehiagotan hitz egin nuen. Euskara batuaren kontrario baino *h* sartzea ez zuen laket.

Bere Diccionario Castellano Vascoren hitzaurrean honela dio:

"En cuanto a la *h*, no nos convence su empleo.... La razón etimológica y el espíritu de tradición no tienen para mí y para otros muchos tanta fuerza, como las indudables ventajas que supone la supresión de la *h*".

Ematen zuen arrazoiak bazuen pisurik. Euskaldunetan hostik batek bakarrik *h* ahoskatzen zuenez gero, euskaldun guztien bizkarrean *h*-ren losa hori ipintzeak ez zuela merezi.

Pierre Lafittek ere uste hori zuen, baina beste alderdi batetik begiratuta. Lafittek esaten zuenez, Iparraldean bakarrik ahoskatzen zen *h* eta Iparraldean euskara galdu egingo zela. Beraz euskara, irauten bazuen, Hego aldean bakarrik erabiliko zela eta alferrik zela *h* hori hegoaldekoak ikastera behartzea.

Laburpen honetan Mugicaren bizitzaren alderdi batzuk aipatu nahi nituzke.


Mugica nobiziatutik bizi izan zen euskal giroan. Jesuita kide Leon Lopetegi, Felix Korta, Andima Ibiñagabeitia, Migel Mari Zubiaga, Frantzisko Sarobe eta batez ere Jokin Zaitegi izan zituen.

Guztien artean Zaitegi zen euskara kontuetan sutsuena eta langileena. Placidok nobiziatuaz geroztik beti eraman zuen bihotz zolan euskararenganako maitasuna.

Neure denboran ezagutu ditudan gizaki onen artean, Placido bat. Gizon goxoa, apala, maitagarria, malezia gabekoa. Zentzu askotan haur on bat bezalakoa zen. Gertatzen zitzaion guztia kontatzen zuen, ezertxo ezkutatu gabe. Goizean ohean iratzarri zela, zangoak burkoan zituela eta burua zango aldean.

Belgikan autoz zihoala mintxuria egin eta botaka hasi zela. Bota zuela jana ez ezik, gezurreko hortzak ere bai. Konturatu ez, ordea. Gero konturatu omen zen. Atzera joan eta hantxe omen zeuden bere hortzak.

Plazido euskaltzale zen baina bere gisa. Euskaldunekin ere erdaraz egiteko jocra handia zuen. Nik dena dela, ez nuen



amorerik ematen eta nirekin euskaraz egin beharra zegoela bazekien.

Bestaldetik Placido hizketan nahiko totela zen, tartamutu samarra. Hitzak labaindu egiten zitzaizkion, irristatu bata bestearen gainean.

Ziur egon gaitzke Placido, bere izenak dioen bezala, Jainkoaren altzoan "lasai" dagoela. Han, beharbada, euskarak Euskal Herrian iraun dezan Jainkoari otoitz egingo dio. Ez dakit iritsiko ote duen.

*Gotzon Garate
Deustu Unibertsitateko katedraduna*